

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**

**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**

Ikasturtea:2021-2022

**LASARTE-ORIARA MIGRATUTAKO EMAKUME LATINOAMERIKARREN  
JARDUERA FISIKOAREN AZTERKETA**

**NOLA BIZI DUTE ERREALITATEA?**

EGILEA: Leire Belartieta Galardi

ZUZENDARIA: Uxue Fernandez Lasa

DATA: 2022ko maiatzaren 19a

<b>AURKIBIDEA</b>	
<b>LABURPENA ETA GAKO HITZAK</b>	4
<b>1. SARRERA</b>	6
<b>2. EGOERAREN ANALISIA</b>	8
2.1. JARDUERA FISIKOA (JF) ETA INAKTIBITATEA	8
2.2. EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN EMAKUMEAK	9
2.3. EMAKUMEEN GENERO IKERKETAK JFn	10
2.3.1. Emakumeen JFrako arrazoi eta oztopoak	10
2.3.2. Emakume etorkinen JF eta kirolerako arrazoi eta oztopoak	12
2.3.3. Latinoamerikar jatorriko emakumeen JF eta kirolerako arrazoi eta oztopoak	12
2.4. TESTUINGURUA	14
2.4.1. Gipuzkoako emakumeak	14
2.4.2. Lasarte-Oriako testuingurua	15
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	16
3.1. TEORIA FEMINISTAK	16
3.2. IKUSPEGI SOZIO-EKOLOGIKOA	17
<b>4. LANAREN HELBURUAK</b>	19
<b>5. METODOA</b>	19
5.1. DISEINU MOTA	19
5.2. PARTE HARTZAILEAK	20
5.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK	21
5.4. PROZEDURA	23
<b>6. EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b>	25
6.1 MIGRAZIO-PROZESUAREN TESTUINGURUA	25
6.2. JF EGITEKO OZTOPOAK	29
6.2.1. Oztopo intrapertsonala	29
6.2.2. Oztopo interpertsonalak	33
6.2.3. Testuinguruko oztopoak	34
6.3. JF EGITEKO ARRAZOTIAK	36
6.3.1. Arrazoi intrapertsonalak	36
6.3.2. Arrazoi interpertsonalak	37
6.3.3. Testuinguruko arrazoiak	38
<b>7. ONDORIOAK</b>	39
<b>8. ERREFERENTZIAK</b>	43
<b>9. ERANSKINAK</b>	52
9.1. BAIMEN INFORMATUA	52
9.2. ELKARRIZKETAREN GIDOIA	54

9.3.	ELKARRIZKETEN TRANSKRIPZIOA	56
9.3.1.	Transkripzioa I	56
9.3.2.	Transkripzioa II	66

## LABURPENA ETA GAKO HITZAK

Aisian emakumeek gizonezkoek baino jarduera fisiko (JF) gutxiago egiten dutela jakinda eta emakume etorkinek are gutxiago, ikerketa honen helburua, Lasarte-Oriako emakume latinoamerikarrek aisian jarduera fisikoa egiteko dituzten oztopo eta arrazoiak ezagutzea izan zen, baita haien behar eta interesen inguruko informazio lortzea ere. Honetarako, ikuspegi feministak eta eredu sozioekologikoak oinarri hartuta metodologia kualitatiboa erabili zen. Elkarrizketa teknika bitartez, sakontzeko galdeketak eginez, parte-hartzaileen ahotsak, bizipen eta begirada ezagutzea lortu zen. Hauen ahotsetan JF egiteko oztopoak emakumea eta etorkina izateak dakarretetik, zaintza ardurak dakarren denbora faltaraino. JF egiteko aukerei dagokienean, berriz, JF egiteko arrazoi nagusia askatasun unerako erabiltzen zutela izan zen. Emakumeek etorkizunera begira egindako proposamenen artean adierazi zuten, emakumeei bideratutako jardueren eskaintza zabalduko balute eta diru-sarrerak kontuan hartuko balituzte lagunduko lukeela euren bizi estiloa aldatzen eta JF egiteko aukerak zabaltzen. Ondorioz, emakume hauek emakume izateagatik dituzten zaintza ardurak eta gorputz irudiaren estereotipoen oztopoez gain, migrazio-politikek, besteen begiradek eta gutxiespenek hesi handiagoa sorrarazten dute, JF egiteko orduan eraginez.

GAKO-HITZAK: jarduera fisikoa, eredu sozioekologikoa, feminismoa, zaugarritasuna, aisia, azturak.

### RESUMEN:

Se ha constatado que en su ocio las mujeres realizan menos actividad física que los hombres y las mujeres inmigrantes menos aún. El objetivo de este trabajo fue conocer los hábitos, obstáculos y razones de la actividad física en el tiempo libre de mujeres latinoamericanas de Lasarte-Oria para así, conocer sus necesidades e intereses. Para ello, mediante el método cualitativo, se ha usado como base la perspectiva feminista y el modelo socioecológico. Mediante la técnica de entrevista se han logrado las voces, vivencias y la mirada de estas mujeres. En general, han destacado los obstáculos, desde lo que conlleva ser mujer e inmigrante hasta lo que suponen las responsabilidades de cuidado. La razón más importante para practicar actividad física fue tener un momento de desconexión. Las mujeres hicieron hincapié en propuestas de mejora para el futuro como ofrecer más actividades dirigidas a mujeres teniendo en cuenta sus ingresos. En consecuencia, además de las barreras asociadas a los estereotipos de la imagen corporal y de las responsabilidades de cuidado que tienen estas mujeres por el hecho de ser mujeres, las políticas migratorias, las miradas ajenas y los menosprecios han puesto de manifiesto una mayor barrera en la práctica de la actividad física.

PALABRAS CLAVE: Actividad física, modelo socioecológico, feminismo, vulnerabilidad, ocio, hábitos.

**ABSTRACT:**

Women are less active in leisure than men, and more so in immigrant women. The purpose of this study was to recognize the difficulties and the reasons for doing physical activity of Latin women in leisure, and to obtain information about their needs and interests. A qualitative methodology was used based on feminist views and socioecological models. Through conversational techniques, deepening interrogations, the voices of participants became known for their experience and their gaze. The results underlined the inconvenience of being a woman and an immigrant in their voices as well as the lack of time due to caring responsibilities. The main reason to be physically active was that it was their moment of freedom. They pointed out among their proposals for the future, that if they were to extend the offer of activities aimed at women and take into account their income, it would help change their lifestyle and expand their chances of being physically active. Consequently, besides the obstacles such as stereotypes and caring responsibilities, and stereotypes related to the body image of these women for being women, they also answered that migration policies, the looks and the diminution of others create a greater barrier to physical activity.

**KEY WORDS:** Physical activity, socioecological model, feminism, vulnerability, leisure, habits.

## 1. SARRERA

Emakume eta gizonen arteko desberdintasuna esparru guztietan bezala, jarduera fisiko (JF) eta kirolean ere nabari da, kirola gizartearen isla baita. Beraz, Munduko Osasun Erakundearen (2021) arabera, herrialde gehienetan emakumeak ez direla gizonak bezain aktiboak justifikatzea ahalbidetzen du. Izan ere, eremu honek gizarteko androzentrismoa eta antolaketa patriarkalaren eragina izaten jarraitzen du (Hargreaves, 2000).

Oraindik ere, emakumeek oztopo gehiago dituzte aisia praktikatzeko garaian hainbat faktore direla medio eta horregatik zaila izaten da aisia, emakumea eta generoa ulertzea. Esaterako, emakumeek zenbait norabideetan beregain hartzen dituzte askotan ardura eta rol sozial asko, hain zuzen, ama, ahizpa, amona, laguna, maitalea eta alaba paperetan (Freysinger eta Harris, 2006).

Hortaz, Lasarte-Oriako argazkia izanik, interesgarria iruditu zait literaturak esaten duena errealitatearekin alderatzea eta aztertzea. Beraz, emakumeak aisian duen espazioa ezagutzeaz gain, herriko portzentaia handi bat emakume latinoamerikarrek osatzen dutela ikusita, argazkiko hausnarketa txikiek, euren aisirako eta JFrako ohiturak aztertzea eraman naute.

Oztopoak asko dira, azken finean emakumea jaiotzen den momentutik estereotipo ugariz josita dago eta hazkuntzan zehar horiei aurre egiten hasi beharko da, bizi osoan zehar luzatuko dena. Horrek, JF egiteaj izugarritzko inpaktua izaten du txikitatik. Nagusiena, emakumearen gorputz irudi perfektuak sorrarazten duen presioa izaten da. Heltzearekin batera, emakumeek oztopo gehiago dituzte aisia praktikatzeko garaian, besteak beste, etxeko lanak, etxekoen zaintza eta beste hainbat faktore (Alfaro Gandarillas et al., 2011). Euskal Autonomia Erkidegoan ikusi daitekeen bezala, etxeko lanen banaketa emakume eta gizonen artean ere desberdina da: emakumeek denbora gehiago ematen dute etxeko lanak, adingabeak eta mendeko pertsonak eta zaintzen gizonak baino (Eustat,2021).

Hainbat ikerketatan frogatu den bezala, aisia, emakume eta gizonen ezberdintasunak ulertzeko espazioa da. Izan ere, emakume eta gizonen arteko etxeko lanen banaketa desorekatuak, aisiarako denbora gutxiago uzten dio emakumezkoari. Esaterako, emakume gehienek kontratu sozial bat onartzen dute haien familietan bizi guztirako irauten duena eta gainera, eguneroko ordu kopuruetan mugarik ez duena, hau da, lan laboralez gain, etxeko lanen zama handiena euren ardura da (Duran, 2000).

Emakumeek generoarengatik aurkitzen dituzten zailtasunez gain, arraza, klasea, jatorria, etnia eta erlijioa bezalako atributuek, jendea baztertzen duten beste ardatzetako batzuk dira. Guzti hauek JFan eta aisiako praktikarako eragina dute. Honek ulertzera eramaten gaitu, emakume etorkinek JFarekin duten harremana ez dela kasualitatea, kausalitatea baizik (Hick, 2012).

Esaterako, National Center for Health Statistics (NCHS) (2006) AEBetako erakundeak egindako azterketa baten arabera, latinoamerikarrek aisian JF egiten pasatzen duten denbora bertakoena baino askoz baxuagoa zen, bereziki, emakumeetan. Aisiako parte hartzearen desberdintasun honen arrazoia kultura aniztasuna dela ondorioztatu da (Freysinger eta Harris, 2006).

Hau ikusita eta Lasarte-Oriako biztanleriaren argazkia ikusita kolektibo minoritarioen errealitate soziala ezagutzea da helburua. Hain zuzen, lan hau Lasarte-Oriako emakume latinoamerikarrek JFrako dituzten ohitura, oztopo eta arrazoiengan zentratu da. Izane ere, urteak dira etorkinen inguruko hausnarketa txikiak egiten ditudala eta herrian alde batera eta bestera dabiltzala jakin arren ez ikusiarena egiten dugula bertakoek. Gure kolektiboaren osagarri ikustea kosta egiten da, badirudi haien komunitateetan eroso daudela, baina nork daki benetan etorkin bakoitzaren istorioa? Zergatik heldu dira Lasarte-Oriara? Nahi dutelako? Behar dutelako? Ez dutelako besterik? Zein hurbildu zaie ongi etorria ematera, bertako nondik norakoak azaltzera? Galdera horiek guztiak azken urteetan nire burutik pasa ostean, ikusezinak diren milaka errealitate daudela ohartu naiz. Horregatik, lan honek, nire pentsamenduak azalera eramateko eta emakume etorkin hauen benetako bizipenak ezagutzeko aukera eman dit.

Lanaren atalei dagokionez, honako ataletan aurkeztuko da informazioa. Lehenik, egoeraren analisi bat egin da non, JF eta inaktibitatea zer den, egoera zaugarrian dauden emakumeak nola definitu diren, emakumeen eta emakume latinoamerikarren genero ikerketak JFan eta Gipuzkoako zein Lasarte-Oriako emakumeen testuingurua azaltzen diren. Bigarrenik, marko teorikoa aurkeztuko da, teoria feministak eta eredu sozioekologikoak izanik ikerketa honen oinarria. Gero, metodologia atalean, lanaren prozesua hasieratik bukaeraraino nola garatu den azaltzen da. Ondoren, emaitza eta eztabaida atala osatu da, Lasarte-Oriako emakume etorkinek, aisialdian JF egiteko dituzten arrazoi eta oztopoak azaleratuz. Azkenik, ondorioak atera dira lortutako emaitzak kontuan hartuz, hain zuzen, emakume hauen oztopo eta arrazoiak, etorkizunerako ildoak eta aplikazio praktikoak azaltzearekin bat, ikerlanaren muga eta indarguneak aipatzearekin bat.

## 2. EGOERAREN ANALISIA

### 2.1. JARDUERA FISIKOA ETA INAKTIBITATEA

Gizakiaren gorputza, mugitzeko prestatuta dago, hobe esanda, beharrezkoa du egitea eta horregatik, Kolonbiako Kiroleko Medikuntza Erakundeak (AMEDC) dioenez, jarduera fisikoak (JF) edozein gorputz mugimenduri egiten dio erreferentzia, honek deskantsuan baino gastu energetiko gehiago sortzen duelako eta gizakiarengan jarrera boluntario eta autonomo bat sorrarazten duelako (AMEDC, 2002). Mundu mailan, helduen ehuneko handi batek ez du behar adina JF egiten osasuntsu mantentzeko (Bauman et al., 2012). Egoera honek, gaixotasun ez-kutsakorren gehikuntza eragiten du, herrialdearen egoera ekonomikoa edozein dela ere eta biztanleria orokorrari erreparatzen badiogu, gero eta gutxiago dira JF praktikatzen dutenak (Bauman et al., 2012).

JF ezaren inguruan, Munduko Osasuneko Erakundeak (MOE), osasunerako JFri buruzko gomendio globalak ez betetzea munduko hilkortasunaren eragile nagusietako bat dela dio (MOE, 2021). MOEren arabera (2021), JFren onuren artean hauek dira garrantzitsuenak: bihotza, gorputza eta garunarentzat onuragarria da, edozein ariketa fisiko (AF) ez egitea baino hobea da, AF guztiak balio du, gehiegizko sedentarismoa oso txarra da eta edozeinek lortu dezake ohiturak aldatzea bizitza osasuntsuago bat lortzeko. Kalkuluen arabera, urtean lau milioitik bostera arteko heriotzak saihestuko lirateke munduko populazioa aktiboagoa balitz (MOE, 2021). JF ezaren inguruko kalkulu globalek adierazten dutenez, 2016an, helduen % 27,5ek eta nerabeen % 81ek ez zituzten bete MOEren 2021eko gomendioak (astean 150-300 min intentsitate ertaineko jarduera edo 75-150 min intentsitate altuko jarduera) eta joeren datuek erakusten dute hobekuntza orokorra mugatua izan dela azken hamarkadan (MOE, 2021).

MOEk (2021) helduentzat, sedentarismoa honela definitzen du: esna egon bitartean, eserita edo etzanda emandako denbora, energia-gastu gutxirekin, lanbideko, hezkuntzako, familiako eta komunitateko inguruneetan eta garraioaren testuinguruan. JFri buruzko ekintza-plan globalak dioen bezala, gaur egun, ez dago sedentarismoaren kalkulu globalik, baina, besteren artean, berrikuntza teknologikoa, trantsizio sedentarioagoa lanean eta aisialdian, eta motordun garraio pertsonalaren erabilera gero eta handiagoa da mundu osoan eta, ondorioz, JF ereduak aldatzen ari dira sedentarismoa areagotuz (MOE, 2018). Bulegoko zeregin gehienak, autoa gidatzea eta telebista ikustea, besteak beste, sedentarismoaren adibideak dira; zutik egon ezin duten pertsonak ere hartzen dira barnean, gorpil-aulkien erabiltzaileak, esaterako (MOE, 2021). Hortaz, sedentarismo handiagoa osasun-eremua txar hauekin lotzen da: kausa guztiengatiko hilkortasuna, gaixotasun



kardiobaskularrek eta minbiziak eragindakoa, eta gaixotasun kardiobaskularren, minbiziaren eta II motako diabetesaren intzidentzia (MOE, 2021).

Lehenaz gain, sedentarismoak eragiten dituen arrisku eta zailtasun horietan sakonduz, datuek nabarmentzen dute, halaber, emakumeak ez direla gizonak bezain aktiboak herrialde gehienetan, eta alde nabarmenak daudela JF mailan herrialdeen eta eskualdeen artean (MOE, 2021). Desberdintasun horiek JF egiteko aukeretan dauden desberdintasunen ondorioz azal daitezke, eta horrek are gehiago handitzen ditu osasun-arloko desberdintasunak (MOE, 2021).

Amaitzeko, MOEren arabera (2021), inaktiboak izateko arrisku handiko populazioak, gazteak, emakumeak eta adineko pertsonak dira. Horregatik, populazio honen JF ezaren zergatiak aztertu eta haiei bideratutako programak sortu behar dira (MOE, 2021).

## 2.2. EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN EMAKUMEAK

AEBetako Kimberle Crenshaw ikertzaileak erabili zuen lehen aldiz interseksionalitate terminoa 1991ean, nahiz eta honen sustraia AEBetako feminismo beltzean aurkitzen den (McDonald, 2020). Interseksionalitateak gizarte bazterketaren konplexutasuna eta izaera multidimentsionala ulertzen laguntzen du (Else-Quest eta Hyde, 2016). Kontzeptu honek pertsona baten identitatea, elementu sozial anitzek duten elkar eraginaren arabera dela dio, hala nola, arraza, klase soziala, generoa, sexu-orientazioa, adina, nazionalitatea eta beste hainbat, elkarrekin lotuta doazenak (Collins, 2015). Are gehiago, elkar eraikitzen duten kategoria horiek, botere-sistema interseksionatuek, desberdinkeria sozial konplexuak sortzea bultzatzen dute (Hick, 2012). Horien sorrera testuinguru historiko eta interkultural zehatzekin lotuta dagoenez, desberdinak izaten dira unearen eta lekuaren arabera (Collins, 2015). Genero, arraza, klasea, jatorria, etnia eta erlijioa bezalako atributuak, jendea baztertzen duten ardatzetako batzuk dira (Hick, 2012).

Herrialde gehienek egoera zaugarrian dauden kolektiboak definitzeko edo sailkatzeko garaian, faktore sozial, ekonomiko eta kulturalen arabera egiten dute, kontuan hartu gabe faktore hauek desberdintasuna eta bazterkeria ekartzen dutela (Davis, 2008). Egoera horri aurre egiteko zenbait ikerlari interseksionalitatea eta honen analisiak erreminta gisa erabiltzen hasi dira, zaugarritasunaren desberdintasun kualitatibo eta kolektiboen barneko erresilientzia aztertzeko (Collins eta Bilge, 2020).

Egoera zaurgarrian dauden edo arrisku hori izan dezaketen kolektiboen artean, emakumeak daude, diskriminazio bikoitza pairatzen dutenak emakume izateagatik (Areizaga et al., 2020). Arnoso eta kideek (2012) adierazten duten bezala, emakume etorkina izateak, gainera, genero indarkeria sufritzeko probabilitatea handitzen du. Izan ere, hildako biktimen tasa emakume etorkinentzat, espainiar estatuan jaiotakoentzat baino askoz handiagoa da. Amnistia Intenazionala erakundeak jasotako datuen arabera, etorkinen zaurgarritasuna espainiarrena baino sei aldiz handiagoa da, beraz, emakume etorkinek JFrekin duten harremana ez da kasualitatea, kausalitatea baizik (Arnoso eta al., 2012). Esaterako, aktibo ez diren emakumeetan, adina, rol soziala, babes soziala, maila ekonomikoa, bizilekua eta ingurugiroa kontuan hartzeko faktoreak dira eta ikuspegi interskezionalista erabiltzean emakumeek JF egiteko dituzten oztopoak aztertzen lagun dezake (Crespo-Salgado et al., 2014).

Azken urteetan, etorkinen biztanleria hazkundeak gora egin du Espainiako estatuan eta literatura sozial eta epidemiologikoan interes berri bat sorrarazi du (Rodriguez et al. 2008). EAeko emakume etorkinek biztanleria osoaren %48 osatzen zuten 2005 urtean, latinoamerikarrak emakume migratzaileen portzentaje altuena izanik, %60 (Carrizo et al. 2005). Gaur egun, etorkinen portzentajeak gora egin du Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Esaterako, 1998an, etorkinak, populazio osoaren %1,3 ziren eta 2021ean portzentajea %11,1ekoa zen. Horietatik %52,4 emakumeak dira (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018).

Migrazioak eta lan egitearen beharrak dakartzan motibazio intrintsekoen ondorioz, pertsona etorkin batek eremu sozialean jarduteko espazioa galtzen du eta etxeko lanen zaintza ardurak hartzen ditu aisiarako denbora utzi gabe (Carrizo et al., 2005).

### 2.3. EMAKUMEEN GENERO IKERKETAK JFn

#### 2.3.1. Emakumeen JFrako arrazoi eta oztopoak

Azken hamarkadan, kirolaren soziologiak indar handiagoa hartu du emakumeen egoeraren azterketarako (Aldaz Arregui et al., 2010). Genero-ikuspegia gizarte-ikasketetan txertatzeari esker, kirol-errealitatea hobeto ulertzeaz gain, dauden bidegabekeriak salatu ahal izan dira eta horrela, kirolaren soziologiaren garapen zientifikoak azterketa-ildo ugari sortu ditu genero ikuspegitik (Aldaz Arregui et al., 2010).

Duela urte gutxi arte, kirol esparrua aipatzean, ez zen emakumeekin lotzen, baina azken hamarkadetan aldatuz joan da, gaur egungo emakumeen parte hartzea areagotuz eta gizartean ikusgarritasuna lortuz (Hargreaves, 2000). Dena den, eremu honek gizarteko androzentrismoa eta

antolaketa patriarkalaren eragina izaten jarraitzen du (Hargreaves, 2000). Emakumeek zenbait norabidetan beregain hartzen dituzte askotan ardura eta rol sozial asko, hain zuzen, ama, ahizpa amona, laguna, maitalea eta alaba paperetan (Freysinger eta Harris, 2006). Horregatik, zaila izaten da aisia, emakumeak eta generoa ulertzea (Freysinger eta Harris, 2006). Sullivan'sek (2008), ama izandako emakumeak aztertu eta hauek bizitzan edukitako aldaketen ondorioz dituzten ardura berriek ez dutela aisiarako lekurik uzten jakinarazi zuen, besteak beste (Alfaro et al. 2011). Oraindik ere emakumeek oztopo gehiago dituzte aisia praktikatzeko garaian, besteak beste, etxeko lanak, etxeko zaintza eta beste hainbat faktore direla medio (Alfaro Gandarillas et al. 2011).

Eustatek (2021) landutako datuen arabera, EAEn etxeko lanek batez ere emakumezkoen zeregina izaten jarraitzen du. Esaterako, etxeko lanen %67,2 emakumeek egiten dute, eta % 32,8 gizonek. Funtzioen arabera, emakumeek beren gain hartzen dituzte haurren, adinekoen eta gaixoen hezkuntza- eta zaintza-lanen % 65. Etxeko lanen kasuan, arroparekin lotutako jardueren % 83 (erostea, garbitzea, lisatzea, etab.), % 69 janariarekin (planifikatzea, erostea, janaria prestatzea, garbitzea, etab.) eta % 62 etxearekin lotutakoak (erostea, alokatzea, garbitzea, altzariz janzteak, mantentzea, konpontzea, etab.) (Eustat, 2021). Horrenbestez, etxeko lanen banaketa EAEko emakume eta gizonen artean ere desberdina da: emakumeek denbora gehiago ematen dute adingabeak, mendeko pertsonak eta etxeko lanak zaintzen gizonen baino (Eustat, 2021). Etxeko lanen banaketari dagokionez, hamar gizonetik bederatzik (%89) 2 ordu edo gutxiago ematen dituzte, eta hamar emakumetik ia hiruk ( % 27,5) 3 edo gehiago (Eustat,2021). Hortaz, lan egiten duten gizonen ehuneko handi bat oso pozik dago bikotekidearen parte-hartzearekin ( % 74,8), eta oso pozik dauden emakumeak % 44,6 dira (Eustat, 2021).

Esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak (2021) egindako ikerketa baten emaitzen arabera, emakumeen %32k inaktibo gisa identifikatzen du bere burua hainbat arrazoiengatik, besteak beste, denbora falta, nekea edo gogo falta dira JF egiteko oztopo nagusiak. Emakume inaktiboaren profilari dagokionez, 30 eta 49 urte artekoak dira nagusi, asko herri txikietan bizi dira eta gehienak ama dira, 12 urte bitarteko seme-alabak dituztenak (Eizagirre-Sagastibeltza et al., 2022). Nabarmenezkoa da, edonola ere, inaktibo gehienek JF egiteko asmoa adierazi zutela galdetu zitzaizanean (Eizagirre-Sagastibeltza et al., 2022).

### 2.3.2. Emakume etorkinen JF eta kirolerako arrazoi eta oztopoak

Egoera hori zaildu egiten da jatorrizko herrialdean bizi ez diren emakumeen artean, euren jairolekutik urrun bizitzeak, bizi diren herrialdean talde minoritario baten kide bihurtzen baititu (Pfister, 2004). Egoera aztertzeke, migrazioarekin lotutako hainbat kontzeptu teoriko hartu behar dira kontuan, hala nola migrazio-prozesua bera, sozializazioa eta generoa (Pfister, 2004).

Tironek (1999) etnia minoritarioetako emakumeen aisia aztertutako ikerlan baten arabera, etnia, arraza eta generoa interskezionatzen dituen aisiaren konplexutasuna ulertzea garrantzitsua da. Hala, gehienek, adin tarte batean, nerabezaroan hain zuzen, arrazismo eta bazterkeria gehiago jasaten dute aisian izugarritzko inpaktua ekarriz, aisialdiko jardueretan ezin parte hartuz eta ondo pasatzeko aukera hori baztertuz (Tirone, 1999. Horregatik, ikerketa askotan ondorioztatu da etnia minoritarioetako emakumeek, haien artean, taldeak osatzen dituztela aisian jarduera ezberdinak burutzeko (Tirone eta Pedlar, 2005). Askotan, talde hauek, kultura tradizionalen oinarritutako praktikarekin betetzen dute aisiako denbora, talde dominanteko edozeinek parte hartzeko aukera izan gabe (Tirone, 1999).

Azkenik, Emakundek (2012) aztertu zuen bezala, kontuan hartzekoa da jatorri ezberdineko etorkin-taldeen emakume kopurua, Euskadi mailan, Latinoamerikako etorkin-taldearen ondoren, emakume kopuru handiena Ipar Amerikako etorkin-taldeak duela (% 57,3), eta gero, Europar Batasunekoak ez diren Europako herrialdeetako etorkin-taldeak (% 55,3). Dena den, leku horietatik etorritako etorkinak ez dira asko. Kontrako muturrean, emakume kopuru txikiena Afrikako (33,4 %) eta Asiako (% 37,8) etorkin-taldeek dute (Emakunde, 2012).

### 2.3.3. Latinoamerikar jatorriko emakumeen JF eta kirolerako arrazoi eta oztopoak

Ildo honen adibide esan bezala, jatorri latinoamerikarreko emakumeak dira, azken urteetan gero eta presentzia handiagoa hartzen ari baitira zenbait herrialdetan (Census Bureau, 2009). Esaterako, 2005ean EBeko populazio osoaren %17,7 ziren (Census Bureau, 2009). National Center for Health Statistics (NCHS) (2006), latinoamerikarrek aisian JF egiten pasatzen duten denbora bertakoena baino askoz baxuagoa dela berretsi zuten eta bereziki emakumeetan areagotzen dela ezberdintasun hori. Aisiaren parte hartzearen desberdintasun honen arrazoia kultura aniztasuna dela ondorioztatu zen (Freysinger eta Harris, 2006).

Hala ere, latinoamerikarren artean, JF baxuagoa da emakumeetan gizonezkoetan baino, horien hezkuntza, autoritate eta senarrarekiko egoeraren ondorioz (Amerikan Heart Association, 2009). Horregatik, emakume latinoamerikarren JF aztertu eta ulertzeko, ezinbestekoa da latinoamerikarren kultura ezagutzea haien rol familiarak JFan parte-hartzean duen eragina ulertzeko (Freysinger eta Harris, 2006).

Talde minoritario honen identitatea kolektibotasuna dela esaten da, balore handiagoa familiak eta komunitateak hartzen duelako indibidualki egiten den edozerk baino (Freysinger eta Harris, 2006). Hau da, eurengan pentsatu baino besteengan pentsatzen dute (Triandis, 1989). Kultura kolektibista honek, balore interpersonalak ditu oinarri. Esaterako, banakoa, familia eta ingurumenaren arteko intersekzioan oinarritzen da (Gloria et al. 2003). Bestetik, familiarismoa eta haien arteko errespetua da kultura honen beste ezaugarri garrantzitsuenetako bat, izan ere, erabaki garrantzitsuak, familia osoan pentsatuz hartzen dituzte eta ez indibidualki pentsatuz, kolektibotasuna norbanakoaren aurretik jarritz (Freysinger eta Harris, 2006).

Genero antolaketaren eragina zuzenki lotuta dago latindar familiarrekin, non gizona familiaren sostengua den, emakumeak umeen zaintzaz eta etxeko lanez arduratzen diren bitartean (Hondagneo-Sotelo, 1992). Beraz, emakume latindar askoren esperientzian, presio kultural handia dago eta haien bizitza pertsonala familiaren beharretarako sakrifikatu behar izaten dute eta inoiz ere ez jarri haien beharrak besteen beharren gainetik (Gil eta Vazquez, 2014).

Emakume hauen kulturaren murgilduz gero, JFren inguruko ikuspegia ulertzea errazagoa da. Emakume latindarrek, ez dute kontsideratzen haiek JF aisian egiten dutenik (Freysinger eta Harris, 2006). Haiek diotenez, JF familia giroan, etxeko lanetan (garbiketa orokorrean, umeen zaintzan, zaharren zaintzan) eta oinez ibiltzen (autobusera joatean, lanean) egiten dute (Freysinger eta Harris, 2006).

Kulturaz gain badituzte JF egitea baldintzatzen dieten beste hainbat faktore. Ransdell eta Wellsek (1998), talde minoritario honek JFari buruzko informazio gutxiago duela eta flexibilitate gutxiago dutela haien lan ordutegiengatik ondorioztatu zuten, besteak beste. Horrez gain, Evensonek (2002) aztertu bezala, ingurugiroa ere JFaren parte hartzearen muga handienetako bat da, inguruko parkeak, gune ziurrak, garraio publikoaren hurbiltasuna, eta gidabaimena edukitzeak asko baldintzatzen dituelako emakume hauek bereziki. Azkenik, Skowronek (2008) emakume latinoamerikar batzuei ea JFan parte hartzerakoan, zein muga aurkitzen zituzten galdetzean, haien

hiru arrazoi nagusiak hauek izan ziren: umeen zaintza, denbora falta eta ekonomia maila. Emakume hauei inposatutako rolek presio handia sorrarazten diete eta zuzenki erlazionatuta dago JFan parte hartzearekin, besteak beste, ez direlako eroso sentitzen, adibidez, umeak besteen ardurapean uztean (Freysinger eta Harris, 2006).

## 2.4. TESTUINGURUA

### 2.4.1. Gipuzkoako emakumeak

Gipuzkoa, Euskal Herriko ipar-erdialdean kokatzen den zazpi lurraldeetako bat da. Biztanleriari dagokionez, 718.887 pertsona bizi dira osotara, 351.267 gizonezkoak eta 367.620 emakumezkoak (Eustat, 2021). Horietatik %11,3a atzerrian jaiotako biztanleek osatzen dute, hain zuzen, 81.692 pertsonak (INE, 2021). Azken urteetan, atzeritik etorri diren biztanleria hazten joan da Gipuzkoan zein beste herrialdeetan.

Euskadi mailan esaterako, Emakundek (2012) aztertu zuen bezala, jatorri ezberdineko etorkin-taldeek emakume kopurua handia da, Latinoamerikako etorkin-taldearen ondoren, emakume kopuru handiena Ipar Amerikako etorkin-taldeak du (% 57,3), eta gero, Europar Batasunekoak ez diren Europako herrialdeetako etorkin-taldeak (% 55,3). Dena den, leku horietatik etorritako etorkinak ez dira asko. Kontrako muturrean, emakume kopuru txikiena Afrikako (33,4 %) eta Asiako (% 37,8) etorkin-taldeek dute (Emakunde, 2012). Gipuzkoa mailan, berriz, atzerrian jaiotako biztanleriaren %39,5 amerikarra da, %25,2 europarra eta %23,8 afrikarra (INE, 2021).

Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko inkestak (2018) erakusten duenez, 18 urte baino gehiagoko hiru pertsonetatik bik JF gutxieneko maiztasuna praktikatzen dute, izan egunerokoa (%24,3) edo ez (%42k astean aldi batzuetan). Aitzitik, hamarretik ia hiru lagun (%28,9) sedentario gisara sailka daitezke, ez baitute egiten sekula JFrik eta migratzaileen kasuan, pertsona sedentarioen portzentajea %47,4 da (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018). Datu hauek, osasun inkestak eskainitakoekin bat datoz, eta, zehazki, EAEko Osasun Inkestarekin, non, 2018 urterako, osasuntsua zen JF mailara iristen zen pertsonen proportzioa %67,9an zehaztu zuen (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018).


Adinez nagusi izanik, 18 urtetik gorakoek, nahi bezainbeste JF ez egitearen arrazoi nagusiak, berriz, honakoak zirela zerrendatu zen lan berean: lanagatik astirik eza, familia eta etxeko lanak (%62,1 arentzat lehen arrazoia), osasun arazoak (%19,4), borondate eza edo nagikeria (%15,8) (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018). Gainera, adinaz gain, nazionalitatea da desberdintasun gehien nabarmentzen

diren beste ezaugarrietako bat (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018). Migratzaileen artean pertsona sedentarioen proportzioa, ia-ia kolektibo horren pertsonen erdiak osatu zuen (%47,4); eta atzerritar nazionaliterik ez zuen biztanleriaren artekoa soilik %26,7ra heldu zen (Gipuzkoako Pobrezia Inkesta, 2018).

#### 2.4.2. Lasarte-Oriako testuingurua

Lasarte-Oria, 1986.urtean sortu zen Gipuzkoako ipar-ekialdeko udalerrri bat da. Bertan, 19.294 pertsona bizi dira, 9.836 emakume eta 9.458 gizon hain zuzen eta biztanleria osoaren %12,05 sortzez atzerritarrak dira (Eustat, 2021). Lan adinean (20-64) dauden pertsonen errepertorioa, emakumeak 5.516 dira eta gizonezkoak 5.615. Horien artean, lanean daudenak osotara 5.022 pertsona dira eta hortaz, langabezia tasa %8,2koa da (Eustat, 2021).

INEren (2021) datu estatistikoak kontuan hartuz, beste lurralde batean jaiotakoak diren Lasarte-Oriatarrek 2279 pertsona izatera iritsi dira. Horietatik 890 emakume amerikarrak, 76 afrikarrak, 65 asiarrak eta bakarra ozeaniarra (INE, 2021). Beste lurralde batean jaiotako biztanleriaren proportzioa bertako biztanleriaren proportzioarekin erlazionatuz gero, Lasarte-Oria da proportzionalki beste jatorrietako biztanleria gehien biltzen dituen herria, aniztasun handia izanik (INE, 2021). (ikus 1.irudia)



1.irudia: Lasarte-Oriako jatorri aniztasuna (INE, 2021).

Lasarte-Oriako biztanleriaren argazkia egin ostean, atzerritarrak diren emakumeen kopurua nahiko handia dela ikusten da, hain zuzen 890 emakume eta hogeitatu bat herrialde ezberdinetakoak (INE,2021).

Hickey (2012) esan bezala, genero, arraza, klasea, etnia eta erlijio bezalako atributuak, jendea baztertzen duten ardatzetako batzuk dira eta Amnistia Internazionalerako erakundeak (2007), aztertu bezala, etorkinen zaugarritasuna espainiarrena baino sei aldiz handiagoa da, beraz, emakume horiek JFarekin duten harremana ez dela kasualitatea kausalitatea baizik ikusarazten laguntzen du.

### **3. MARKO TEORIKOA**

Ikerlan honetan teoria feministak eta ikuspegi sozioekologikoa erabili dira marko teoriko modura, errealitatea betaurreko horien arabera aztertuz. Jarraian ageri dira bakoitzaren oinarri nagusiak zeintzuk diren.

#### **3.1.TEORIA FEMINISTAK**

Teoria feministek, beste ikuspegi batzuk ez bezala, pertsonen arteko jarreraren aldaketan arrazoiak eta emakume zein nesken bizitzaren ikuspegia ulertu eta aldatzen laguntzen dute (Henderson eta Show, 2006). Hasierako teoria feministak, duela 30 urte, emakumeen esperientzien ahotsetan oinarritu ziren, bizitzan zituzten oztopoak ulertu eta aztertzeko (Hesse-Biber, 2007). Ondorioz, emakumeen bizi baldintza zenbait arlotan benetan larria zela eta aldaketa handi bat behar zuela ikusten hasi ziren (Hesse-Biber, 2007). Esaterako, esperientzia horietan aisia, generoa eta emakumeak biltzen dituen arloan desberdintasun handia zegoela ikusi zuten (Henderson eta Gibson, 2013).

Emakume eta familia kontestuak arrazoi ugari ematen ditu, emakumeek aisiarekin duten erlazioa ulertzeko (Henderson et al., 2002). Izan ere, emakumeek, aisiako denbora gehiena familia inguruko ekintzetan pasatzen dute: etxeko zaintzan eta etxeko lanetan, bereziki, hain zuzen (Henderson et al., 2002). Badirudi ez dela emakume askorentzat aisia gizonentzat bezala agertzen, eta maiz ez dela existitzen, garrantzirik gabekoa eta oso behartua ikusten delarik (Henderson et al., 2002). Izan ere, emakumeek erantzukizunetan eta besteekiko konpromisoan zentratzea garatzen dute eta besteekiko harremanean beren burua definitzen ikasten dute (Henderson et al., 2002). Arduraren etika hertsapen bat izan daiteke bizitza norberaren ukapenean zentratzen denean eta besteen beharrak direnean, hau da, beti lehen lerroan besteak jarri eta norbera azken kokatzea (Henderson et al., 2002).



Horrez gain, aisia eta JFarekin lotuta, emakumeen populazioko beste zenbait talde minoritario kontuan hartu behar dira, beste oztopo gehigarri batzuekin aurkitzen baitira. Ikerlan honekin lotuta, emakume latinoamerikarrak, haien kulturaren ondorioz dituzten mugak nabarmendu behar dira (Skowron et al., 2008), emakume gazteek eta ama gazteek dituzten betebeharrekin (Craike et al., 2009), adineko emakumeek JFren onuragarritasunaren informazio eta interes eza eta desgaitasunen bat duten emakumeak, egunerokotasunean aurkitzen dituzten oztopoak (Son et al., 2008) ere aintzat hartuz.

Egoera hau ondo ulertzeko emakumeek aisialdian dituzten rolak aztertu behar dira. Emakumeen aisialdia sozialki eraikita dago, feminitatearekin, amatasunarekin eta familiarekin lotutako agindu ideologikoekin eta gizarte-itxaropenekin lotuta (Henderson eta Shaw, 2006). Esaterako, emakumeentzat ama edota alaba bezalako paperen ondorioz, beren familiako eginkizunak, lehenetsun nagusi bihurtzen dituztenez, ezin dute beren denbora norberaren aisiarako erabiltzea aukeratu (Craike et al., 2009). Ikuspegi subjektibotik, aisialdia ez da emakume gehienek beren bizitzarekin bat egiten duten termino bat, edo, hala egiten badute, aisialdia ikusten dute beren buruentzat denbora lortuz (Craike et al., 2009)

Azken urteetan egindako ikerketetan ikusi da, emakumeek generoa eta aisia ulertzeko ez dela soilik emakume kategoria kontuan hartu behar, emakumea ez delako talde homogeen bat, emakume bakoitzak esperientzia propio bat bizitzen duelako beste kategoria sozial batzuen arabera, generoa, arraza, maila ekonomikoa, sexualitatea besteak beste (Henderson eta Gibson, 2013). Beraz, zenbait ikerlari, kategoria sozial horien intersektionalitatea ikertzen hasi ziren JF eta aisian zuen eragina aztertzeko (Henderson eta Gibson, 2013). Izan ere, aintzat ez da emakumeen kategoria soilik hartu behar, baizik eta kategoria sozialeko dimentsio ezberdinak, elkar zeharkatu eta elkarren eraginean osatzen baitute testuinguru oro, besteak beste, ondorengoek: generoa, arraza, adina, sexualitatea eta maila ekonomikoa ( Ferree eta Choo, 2010).

### 3.2. IKUSPEGI SOZIO-EKOLOGIKOA

Asko dira JF aztertzeko urteetan erabili dituzten teoriak, baina eredu sozio-ekologikoak ez du faktore bakarra kontuan hartzen, aitzitik eragina izan dezaketen faktore guztiak hartzen ditu bere baitan, beraz, faktore pertsonal eta ingurugirokoetan soilik arreta jarri beharrean, ikuspegi sozioekologikoak, faktore hauen guztien arteko elkar eragina aztertzen du (McLeroy, 1988).

Mc Leroy eta kideek (1988) proposatutako eredu sozio-ekologikoa, teoria tradizioaletik

ateratzen da eta faktore indibidualak soilik kontuan hartu beharrean, bost printzipiotan oinarritzen da haien arteko elkarreragina aztertzeko.

Lehenik, eragin indibiduala azaltzen du. Faktore intrapertsonalak norberaren jarrerak, kontzientzia, ezagutzak, sinesmenak, lehentasunak, balioak eta motibazioak biltzen ditu (McLeroy et al., 1988). Bigarren mailan faktore interpertsonalak kokatzen dira, dimentsio honek pertsonen arteko elkarrekintzari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen, familiaren, lagunen eta bestelakoen arteko eragina. Azken hauek, JFari buruz duten esperientzian sinesmena eta jarrera erabakigarria izango dira gizabanakoaren esperientzian (McLeroy et al., 1988). Hirugarren mailan, berriz, instituzio eta erakundeak kokatzen dira. Betan, elkarte, federazio, kirol-klubak, kirol-jarduerak eta hauen antolatzaileak dira bitartekari garrantzitsuak, pertsona baten berehalako zein urrutiko etorkizunean erabakiak hartzeko eta gizabanakoaren kirol esperientzia modu batekoa edo bestekoa izateko (McLeroy et al., 1988). Horrez gain, lugarren dimentsio moduan komunitate-mailan dauden ingurune fisikoak (ingurune irekiak, naturan jarduera fisikoa egiteko ingurune egokiak), instalazioak (gimnasioak, parkeak, kirol-zentroak), erakundeak eta sare sozialak, herritarren kideen arteko kohesio mailan garrantzia handia edukiko du eta desberdina izango da bizipena jarduera praktikatzan den eremuaren arabera (McLeroy et al., 1988). Azkenik, bosgarren dimentsioa osatzen duen politika publikoak aztertzea ezinbestekoa izango da, helburu bezala, JF sustatzeko politika publikoak garatzea izango duena, gizabanakoek fisikoki aktiboak izateko aukera gehiago izan dezaten (McLeroy et al., 1988).

Beraz, eredu sozio-ekologikoak, norbanakoaren JF maila egokia sustatzeko, bost mailetara heltzen eta esku hartzen ahalegindu behar dela adierazten du (indibiduala edo intrapertsonala, interpertsonala edo pertsonen artekoa, instituzionala, komunitarioa eta politika publikoena), inaktibitatearen arrazoiak eta gakoak aztertzeko tresna baliagarria bihurtuz (Sallis et al., 2006).

Gainera, eredu sozioekologiko hau JF aztertzeko bereziki egokia da, eremu zehatz batzuetan burutzen eta praktikatzan delako. Hortaz, ezinbestekoa da, JF praktikatzan diren tokiko ezaugarrien arabera aztertzea, jarduera erraztu edo zailtzen duten ikusteko (Sallis et al., 2006). Faktore politiko eta ingurumenekoei ematen die garrantzia, azken urteetako joerek (garraio publikoa erabiltzearen beherakada, ordenagailuaren erabilera) sedentarismoa esponentzialki igoarazi dutelako eta garai bateko ohitura osasuntsuak desagertzen ari direlako (Sallis et al., 2006).

Eredu ekologiko hauek lau printzipio dituzte oinarri, ondorioz (Sallis et al, 2015):

1. Osasun-portaera espezifiko ezberdinak existitzen dira: intrapertsonala, interpertsonala, komunitarioa eta politika publikoena.
2. Portaeren gaineko eraginek elkarri eragiten diote maila horietan.
3. Eredu ekologikoek portaeraren berariazkoak izan behar dute, maila bakoitzean eragin potentzial garrantzitsuenak identifikatuz.
4. Maila desberdinetako esku-hartzeek eraginkorragoak izan beharko lukete portaera aldatzeko.

#### **4. LANAREN HELBURUAK**

Aurretik aipatutakoa kontuan harturik, lan honen helburu nagusia, Lasarte-Oriako emakumeek, aisian JF egiteko dituzten ohiturak, oztopoak, beharrak eta arrazoiak aztertzea izan da, bereziki, egoera zaurgarrian dauden emakume etorkinengan jarri da arreta, jatorri latinoamerikarra dutenengan, deskribapen orokorretik harago.

Helburu nagusiaz gain, azpi-helburu batzuk ere baditu lanak:

- Lasarte-Orian, JF egiteko, emakume etorkinek dituzten oztopoak eta arrazoiak ezagutzea, euren errealitatea deskribatzeko eta ikusgarritasuna emateko.
- Lasarte-Orian, emakume hauek JF egiteko dituzten beharrak eta interesak aztertzea.
- Emakume etorkinen JF ezaren kausaz ohartzeko, ondoren errealitate sozial hori eraldatzen joateko eta emakume horien JF sustatzen duten programak sortzeko oinarria eraikitzen saiatzeko.

#### **5. METODOA**

##### **5.1. DISEINU MOTA**

Lan honetan erabili den metodologia kualitatiboa izan da, interpretatiboa, alegia (Herrera, 2017). Interpretatzeak, kategoria ezberdinen integratzea, erlazionatzea eta konexioak egitea dakar alderaketa posibleak eginez. Horretarako sormen puntu bat eskatzen du kategoria erlazionatzeko garaian, baina huts egiteko arriskua dagoela ere jakin behar da (Herrera, 2017). Perezen (2002) arabera, ikerketa bateko interpretazio momentua sortzaileenetarikoa da, literaturan agertu diren arazoei erantzun bat ematea baimentzen duelako. Gainera, estrategia ezberdinen bitartez lortu nahi

den erantzun edo soluzioa bilatzea baimentzen du. Azken finean, lortutako erantzunek praktikan funtzionatzen duten edo ez konprobatzen saiatzen da ikerketako emaitzak aztertuz (Pérez, 2002).

Ikerketa kualitatiboak, pertsonen gertakizun sozial konplexuetara iristea du helburu. Ikerketa kuantitatiboaren bitartez lortu ez daitekeenez, metodo honek pertsonen ikuspegi ezberdinak ezagutzea ahalbidetzen du, haien artean, harremanak, sinesmenak, ohiturak, oztopoak eta baloreak (Bedregal et al., 2017).

Lan honen helburu nagusietako bat Lasarte-Oriako errealitate sozial bat ulertzea izan da, hain zuzen, bertako emakume latinoamerikarrek JF egiteko dituzten oztopoak ezagutzea, ondoren haien beharretara egokitutako proposamenak egiteko eta etorkizun batean emakume aktibo gehiago egoteko. Errealitate hori gertuagotik ezagutzeko, metodo kualitatiboa erabili da, zehazki elkarrizketa bidezko teknika (Herrera, 2017).

## 5.2. PARTE HARTZAILEAK

Zati kualitatibo honetan, Lasarte-Oriako emakume latinoamerikar etorkinak biltzea izan da helburua. Beraz elkarrizketetan parte hartu ahal izateko irizpideei dagokionez, alde batetik emakumea izatea, Lasarte-Orian bizitzea baina jatorri latinoamerikarra izatea izan ziren inklusio irizpide nagusiak.

Nahitako laginketaren bidez (Ruiz Olabuenaga, 2012), Lasarte-Orian emakume latinoamerikarrak bildu ziren. Hirukote homogenoaren barruan heterogenitatea dagoela ikusi da, lehena gaztea delako 27 urtekoa hain zuzen eta beste biak ama gazteak, bata senargabea eta bestea bertako senarra duena.

### 1.Taula.

*Talde eztabaidetako parte hartzaileen ezaugarriak.*

GOITIZENA	JAIOTERRIA	ADINA	LASARTEN BIZITAKO URTEAK	AKTIBO/ INAKTIBO	JF MOTA GUSTUKOA
Eneritz	Nikaragua	27	2	Inaktiboa	ibili, mendia
Maialen	Honduras	43	18	Inaktiboa	korrika
Karmele	Honduras	41	18	Inaktiboa	ibili

Etikako irizpideei dagokienez, hasieratik elkarrizketatuei ikerketaren asmo eta metodologiaren inguruko informazioa eman zitzaien baita guztien identitatea anonimizatu egingo zela ere, ikerketa honek UPV/EHUko Etika batzordearen baliospena eta aldeko txostena zuelako (M10-2020-296). B Horrez gain, aldez aurretik jakinaren gainean egonagatik ere elkarrizketatutako egunean bertan, parte hartzaile guztiei baimen informatua sinatzea eskatu zitzaien, bertan jartzen zuena egin nahi ez izatekotan ikerketatik kanpo gelditzeko aukera emanez (ikus 1.eranskina). Baimenaren helburua, parte-hartzaileek ikerketaren azalpen zehatzen inguruko informazioa ematea zen paperean beteko zituzten atal guztien adostasuna agertzeko eta haiek ikerketan zuten garrantzia azpimarratzeko.

### 5.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

Ikerketa kualitatiboa soilik izanik, datuak biltzeko teknika bakarra erabili zen, elkarrizketa bidezkoa alegia. Elkarrizketa indibiduala eta kolektiboa, sakontzeko galdeketa (Ruiz Olabuenaga, 2012) teknikan oinarrituz.

Elkarrizketa terminoak definizio ugari har ditzake baina komunikazioaren bitartez bata bestearen informazioa eskuratzen duen teknika bezala definitzen dute batzuek. (López Estrada eta Deslauriers, 2011). Beste batzuek, elkarrizketa bi pertsona edo gehiagoren arteko konbertsazio bezala definitzen dute leku konkretu batean egiten dena gai baten inguruan solasteko. Ikerketa zientifikoan erabiltzen den metodoa da komunikazio berbalaren bitartez helburu zehatz bat duen informazioa eskuratzeko (López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Teknika honek indar handia hartzen du pertsonen esparru mentalera iristen delako baita bere bizi esparrura ere. Horren bitartez bere egunerokotasuna, erlazio sozialen inguruko informazioa eskuratuz. Kontestu honetan, elkarrizketa ikerketarako teknika baliagarri eta nahikoa da prozesu ikertzaileerako (López Estrada eta Deslauriers, 2011). Gainera, aurrez aurreko egoera bat izanik, elkarrekiko trukea dagoen hizketaldi intimo bat bihurtzen da eta elkarrizketatzaileak beste pertsonen identitatea onartu behar du inolako epaiketarik egin gabe (Taylor eta Bogdan, 1996).

Elkarrizketa hauek lehen esan bezala, banatuak egin ziren eta modu presentzialean guztiak ere. Alde batetik, parte hartzaileetako batekin, neska gaztearekin, eta bestetik, binaka egindako elkarrizketa, elkar ezagutzen zuten beste bi parte hartzaileekin, zeinak amak ere badiren. Azken hauen interakzioa interesgarria izan zen elkar ezagutzeko informazioa sakontzen zutelako aspektu guztietan. Informatzaileek entzun, sentitu, ikusi eta bizitzen dituzten egoerak interesekoak dira ikerketarako.

Bizipenak oso interesgarriak dira ikertzaileak ezagutzen ez dituelako, beraz egoera hauetan informatzaileak jarrerak hauteman behar ditu (Cannell eta Kahn, 1993).

Elkarrizketa mota, erantzun libreetakoa eta bideratua izan zen, elkarrizketa erdi-egituratua (Ruiz Olabuenaga, 2012). Modu honetan, galdera asko egiten dira elkarrizketatuak orientabide malgua izanik. Elkarrizketa bideratuak arreta esperientzien bizipenean jartzen du. Metodoa hortaz, zehatzagoa da, elkarrizketatuen aukeraketa eta helburua zehatzagoa delako. Esaterako, galderak aldeztatik prestatutako gidoi baten arabera planteatzen dira elkarrizketaren bitartean galdera gehiago sartzeko askatasunarekin (López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Teknika hau parte-hartzaileengana joan baino lehen hasi zen. Eginiko galderak presatuak zeuden lortu nahi ziren helburuen arabera galderen gidoi (ikus 2.eranskina) bat eginez. Hala ere, elkarrizketak aurrera joan ahala ez zen gidoiaren ordena berdina jarraitu baina modu guztietan jorratu nahi ziren gaiak landu ziren, elkarrizketatuak direlako teknika mota honetan elkarrizketaren ildoak markatzen dutenak, elkarrizketatzailearen gidaritza lanarekin oreka lortuz.

Garrantzitsua da galdera egoki batzuk aldeztatik prestatzea, erantzuteko errazak direnak, ohikoak ez diren erantzunak jasotzeko eta elkarrizketatzaileak espero ez dituen erantzunei aurre egiteko. Interesgarria da galderak ezjakintasunera bideratutako erantzuna bilatzen duten motakoak izatea, elkarrizketatzailearen sormena pizteko. Laburbilduz, ikerlariak ikerketaren helburua eta arazoa ondo barneratua izatean hasi zen elkarrizketa prozesua, aurretik dena prestatzeko behar beste denbora hartuta (López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Elkarrizketen antolaketari dagokienez, elkarrizketarekin hasi aurretik sarrera moduko bat egin zen elkarrizketatuak testu inguratu eta ikerketaren nondik norakoen informazio orokorra emanaz. Gure buruak aurkeztu ostean eta grabatzen hasi baino lehen, baimen informatua eman zitzaizkien sinatzeko.

Elkarrizketa hau galderen bitartez soilik eman zen aurrera. Hala ere, gidoi orokor bat egon arren, bi emkaume profil zeudela jakinik, bata gaztea eta menpekotasunik gabekoa eta besteak ama edo heldua eta menpekotasunak zituena, alegia, adingabeen zaintzaren ardura, profilaren arabera galdera espezifikagoak ere prestatu ziren (ikus. 2.eranskina).

Galdera komunetan, JFaren inguruko erlazioa eta esperientzia modu librean kontatzea eskatu zitzairen, lehen kontaktu bezala eta gune ziur bat elkarbanatuz eta pixkanaka gai zehatzago eta sakonagoak sartzen joan ziren, elkarrizketatzaile eta parte hartzaileen arteko konfiantza eta lasaitasuna lortu ahala. Horien artean; emakume izateak JF egiteko garaian suposatzen duen oztopoa, egunerokotasunean aurkitzen dituzten mugak praktika aurrera eramateko, etorkina izateak herrian dakarren muga eta migrazio politikak eta azkenik kultura eta gizarte aldaketak. Galdera espezifikoen barruan, bati gaztea izateak eta inoren menpe egoteak JFaren praktikarako aurkitzen dituen onura edo oztopoen inguruko galderak egin zitzaizkion eta besteei amatasunaren rolak dakartzan muga eta oztopoen ingurukoak.

Behin elkarrizketak amaitzean, edozein galdera edo datu gehitzeko aukera eman zitzairen eta grabaketa amaitzean lehenik eskerrak eman zitzaizkien ikerketan parte hartzeagatik eta haien ahotsak eta bizipenak partekatzeagatik.

#### 5.4. PROZEDURA

Elkarrizketatuak bilatzeko, elur bolaren teknika (Ruiz-Olabuenaga, 2012) erabili zen. Lehen elkarrizketatua, nire amonaren bitartez lortu nuen, etxeko garbiketarako egiten zizkion emakumea hain zuzen. Berak, Lasarte-Oriara berarekin batera migratu zuen lagunari esan zion eta horrela bigarrena lortu zen. Azkenik, herriko gazte batek itxuraz neska latinoamerikar bati elkarrizketatzen ikusi nuen eta bere bidez lortu nuen azkena ere.

Lehen kontaktua, Whatsap bidezkoa izan zen hirurekin eta testu bitartez ikerketaren nondik norakoak azaldu nizkien. Elkarrizketatzeko eguna gerturatzen joan zen heinean, bakoitzari audio bana bidali nien nahi izanez gero elkarrizketa lekua haiek adostu zezaten gune ziurra eta erosoan izan zedin.

Azkenik, hiru elkarrizketak presentzialki egin ziren nahiz eta Covid-19 egoera oraindik bertan izan. Ez genuen inongo arazorik eduki leku aldetik. Gelditu baino lehen haiek gustuko leku bat aukeratzeko askatasuna eman nien haientzat gune ziurra eta erosoan izateko. Horrez gain, behin informazio zehatza edukita eta grabatzen hasi baino lehen, parte-hartzaile bakoitzak ikerketan parte hartu nahi zuen edo ez aukeratzeko eskubidea izan zuen. Behin bakoitzaren oniritzia jasota bi elkarrizketak grabatu ziren. Beraz, lehena herriko taberna batean egin genuen eta hori ondo atera zela ikustean eta grabaketa ondo entzuten zela frogatzean beste biek ere beste taberna batean egitea proposatu zidaten.

## 5.5. DATUEN ANALISIA

Datuen analisirako, analisi kualitatiborako hain zuzen edukien analisia (Ruiz Olabuenaga, 2012) egin zen. Teknika hau informazioa eskuratzeko irakurketan oinarritzen da. Ikus entzuneko informaziotik idatzizkora, transkripzio (ikus 3 eta 4.eranskina) prozesua dago (López Estrada eta Deslauriers, 2011). Bertan, elkarrizketatuek esandako guztia idatzi behar da, kasu honetan erdaldunak zirenez, transkripzioa erdara batuan egin zen.

Behin informazio osoa dokumentu idatzian edukita, pixkanaka informazio esanguratsua azpimarratzen eta kategoriatan sistematizatu ostean ideiak eta elkarrizketatuen aipuak multzokatu ziren ideiak erlazionatu eta aztertzeko (López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Elkarrizketatuetatik jasotako informazio esanguratsua kategorizatzeke, eredu sozioekologikoko kategoriak erabili ziren, hain zuzen: intrapertsonala, interpetsonala eta testuingurua (Sallis et al, 2015). Ildo berean, kategorizazioaren bidez zati bakoitza azpi-kategoria eta kodigo ezberdinekin erlazionatu zen eta kodigo horiek kategoriatan eta azpi-kategoria ezberdinetan antolatu ziren (Ruiz Olabuenaga, 2012).

Jarraian kategoriatan sistemen laburpen taula agertzen da:

### 2.Taula.

*Datuak analizatzeko eraikitako kategoriatan sistema*

KATEGORIA	AZPI KATEGORIA	KODEA
OZTOPOAK	ETORRERAREN ERAGINA/ TESTUINGURATU	Lekualdatzea
		Hizkuntza
		Migrazio-politikak
		Besteen begirada
		Gutxiespena
	INTRAPERSONALA	Denbora falta
		Estereotipoen barne gatazka
		Gorputza irudia, autokontzeptua
		Norberaren jarrera
		Lehentasanak



		Zintza ardurak
		Motibazio falta
	INTERPERTSONALA	Bikotea, ardura banaketak
		Zaintza ardurak emakumeen gain
	TESTUINGURUA	Kultura ohiturak
		Politika publikoak
		Diru sarrerak
		Instituzio eta erakundeak
ARRAZOIAK	INTRAPERTSONALA	Askatasun unea
		Errutinatik atera
		Gustuko jarduera
		Osasuntsu mantendu
	INTERPERTSONALA	Besteekin batera egitearen poza
	TESTUINGURUA	Kultura ohituren aldaketa

## 6. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

### 6.1 MIGRAZIO-PROZESUAREN TESTUINGURUA

Elkarrizketetan lorturiko datu askok, JF egiteko oztopo eta arrazoiekin zuzenki lotuak egon ez arren, migrazio-prozesuaren testuingurua ulertzen laguntzen dute. Horrela, JFarekin zuzenki lotuak dauden gainontzeko oztopoak beste modu batera ulertuz eta beste ikuspegi batetik aztertuz. Pfisterrek (2004) dioen moduan, egoera hau aztertzeko, immigrazioarekin lotutako hainbat kontzeptu teoriko hartu behar dira kontuan, hala nola, migrazio-prozesua bera, sozializazioa eta generoa. Egoera hori zaildu egiten da bereziki jatorrizko herrialdean bizi ez diren emakumeetan, euren jaiolekutik urrun bizitzeak, bizi diren herrialdean talde minoritario baten kide bihurtzen baititu. Kasu hauetan, elkarrizketatuek honela adierazten dute migratzearen arrazoi nagusiena, lana bilatzea, hain zuzen. Arrazoi honek, beste edozein arrazoi bikoizten duela ikusten da, nahiz eta beste zenbait arrazoi

prozesu migratzailean eragin, haien artean, askatasun handiagoa lortzea eta soldata handiagoa eskuratzea (Escribano, 2000).

Azken boladan, emakumea da prozesu migratzailea hasten duen banakoa, bere etxea, familia eta lagunak bertan utziz, lan hobea eta bizi kalitate hobe baten bila (Rodríguez, 2007). Espainiar estatuan egoera horrelakoa da (Vicente, 2005) emakume latinoamerikarretan. Bakarrik bidaiatzen duten emakumeak dira, kasu askotan etorkizunaren bermerik gabe eta familietatik aldentzera behartuta (Assis eta Macarro, 2011).

“No hemos venido por gusto al final. Yo he venido a trabajar para que nuestros hijos tengan un futuro mejor”(Maialen).

“Sí un cambio muy grande, pero bueno aquí seguimos, remando, es lo que queda. Vine sola y no fue nada fácil, pero siempre he dicho que de todo se sale”(Eneritz).

Emakumeek herrialdez aldatu eta Lasarte-Oriara iristeko arrazoiak bat egiten du hainbat ikerlanetan ondorioztatu denarekin, hain zuzen, bizi baldintza hobeak eta egoera ekonomiko hobea lortzeko asmoarekin, jatorrizko lurraldea uztea benetan beharrezkoa dela aipatuz eta aldaketa horretara egokitzeko denbora behar dela azpimarratuz, gogorra baita. Injustizia eta desberdintasun sozialak eragiten duen segurtasun faltagatik eta beldurragatik emigratzen baitute (Escribano, 2000)

Eneritzek azaltzen duenez, euskara hizkuntza ez jakiteak ere herritarren arteko harremanetan izugarritzko eragina du. Egia da hizkuntzaren ezagutza izateak ez duela integrazioa bermatzen, baina argi dago hizkuntza ez ezagutzeak integrazioa erabat baztertzen duela (Barquin, 2008). Ez dago integrazioa ailegatutako gizartearen hizkuntza jakin ezean (Barquin, 2008) hau oztopo handi bat izanik eta pixkanaka harremanekiko gero eta itxiagoa bilakatuz, Karmeleren kasuan bezala. Baina zer gertatzen da hizkuntzak bi direnean eta ez bat gurean bezala?

Arrazoi nagusia ezaguna da: euskara normalizatu gabe dago eta horrek ondorioak dauzka. Eta garrantzitsuena da leku askotan ez dela erabiltzen; begi-bistakoa da etorkinentzat autoktonoek ez dutela erabiltzen. Izan ere, gaztelaniaz dakiten etorkinek Hegoalde guztian hitz egiten den hizkuntza badakite eta euskal herritar gehienek beste dakite (berezitasun dialektalez aparte), alegia, euskaraz ez dakiten guztiek beste (Barquin, 2008).

“A mí me ha costado mucho relacionarme con la gente de aquí, son muy cerrados e incluso yo misma me he cerrado”(Karmele).

“Al final no hay esa integración social o es difícil y duro. Uno, porque están todos hablando euskera y dices tú, ¿qué hago yo aquí si no entiendo nada? , es normal”(Eneritz).

Egoera hauek ikusita, EAEk 2018an “Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Plana” diseinatu zuen. Baina 2019an, Itunari Share proposamena gehitu zitzaion, baita printzipio etikoa ere: Migrazioari dagokionez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina (Bergaretxe, 2020).

Heldu ziren herriko testuingurura gerturatu eta bertan txertatzeko zailtasun hauek, euren egunerokoaren zirrikitu guztiak zehartzen ditu eta euren migrante izaera are gehiago azpimarra dezake, euren egunerokoan garatu eta bertan jaiotako beste zenbait herritarren moduan ikusteko prozesua zailduz. Ildo honetan, Bermudez (2011) autoreak ere azpimarratu zuen bere ikerketan europa mailan, hasiera batean etorkinak ez zirela herritar gisa ikusten baizik eta denboraldi baterako langile gisa. Pixkanaka, haien integrazio ekonomikoa zein soziala gizartearen intereseko bihurtu dela antzeman da azken urteetan. Baita kulturalki eta politikoki ere (Bermudez, 2011).

Bestetik migrazio politikak emakume hauetan gogor eragiten duela ikusten da Eneritzen kasuan bezala, oraindik ere erregulatua egoteko 3 urteak bete ez dituelako. Honek izugarritzko eragina du, kiroldegiko zerbitzuetako eskaintza edo edozein jardueratan parte hartu ezin duelako. Dauzkagun erregistroen arabera, badakigu Espainiako nazionalitatea ez duten 3.730.630 biztanleen artean 990.698 pertsona daudela oinarrizko estatus juridikoa aitortu gabe. Hau da, Espainiako Estatuan milioi bat pertsona inguruk ez du subjektibotasunik legearen eta erakundeen aurrean (Huerta, 2007). Izan ere, Kapitalismo globalaren biktimak, errefuxiatu ekonomiko edo politikoak, «Paperik gabekoak» dira. Halaber, batetik herritartasuna baliatzeko eskubidea galtzen dute haien herritik desplazatu direlako eta bestetik, subjektu juridiko gisa duten aitortpena eta, horrekin batera, eskubide fun-damentalak eskuratzeko aukera galtzen dute (Huerta, 2007). Egoera hau gogorra eta luzea izaten ari dela adierazi zuen Eneritzek.

“Tengo que esperar 3 años para estar regulada”(Eneritz).

“El año pasado pregunté para ir al polideportivo, no pude y me eché un poco para atrás, al final no estoy regulada, no tengo una documentación en regla”(Eneritz).

“Para trabajar no tienes un seguro, no tienes una identificación, no estoy identificada más que un empadronamiento, estar legalmente donde te pueda coger la policía y que te diga no estás en regla, al cualquier trabajo que vayas necesitas el MIE y si no tienes todo en regla no puedes”(Eneritz).

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) etorkinen biztanleriaren lan sektoreari erreparatuz, ikus daiteke gizarte-segurantzak, etorkin gehien biltzen dituen lan sektorea, etxeko lanen zerbitzua dela (24,3%) eta atzetik ostalaritza (%16). Izan ere, sektore hauek ez dute eskatzen alde aurretiko esperientzia laborala ezta euskara hizkuntza maila alturik ere (Shershneva eta Fernandez Aragon 2018). Esaterako, elkarrizketatuen artean nabari dira hizkuntza eta lanaren inguruko oztopoak edukitzeaz gain, sozialki herritarrek emakume etorkinekiko duten begirada ere oztopo gehigarri bat zaiela. Gutxiesten dituzten herritarren zurrumurruak etengabe entzutea ez da erraza Maialen eta Karmelek azaltzen duten moduan, lana lapurtzera datozen aurreiritzi mingarriarekin eta etorkinak izendatu edo identifikatzeko erabiltzen diren bideekin minduta eta deseroso agertuz.

Latinoamerikako kolektiboak Espainiako lan merkatuko segmentu batzuetan, laneratze-egoera partekatzen du, hain zuzen, bertako langileak pixkanaka alde batera uzten ari diren lan motak, horiek suposatzen duten gogortasunarengatik, babes faltagatik eta prestigio sozial txikiagatik, haien artean, eraikuntza, zerbitzu pertsonalak eta adinekoen zaintza lanak (Oso eta Parella, 2012).

“En el portal me pasa que escuchas (aquí hay inmigrantes) y cosas así. Perdona somos personas, qué ¿por qué vengamos de fuera? ¿qué pasa que tus hijos no han ido a la universidad fuera de aquí? Pues ya son inmigrantes, al final si sales de aquí ya eres inmigrante. A no, pero solo somos inmigrantes los latinos” (Maialen).

“ Como dicen muchos, venimos a quitar el trabajo a otras personas. No perdona, venimos a hacer un trabajo que a veces los mismos de aquí no quieren hacer”(Karmele).

“ Señora que su hijo no quiere trabajar en lo que hay aquí, en lo que trabajamos nosotras, no quitamos el trabajo a nadie (Maialen).

Azken finean, migrazio-prozesuaren testuingurua jakitea oinarritzkoa da, bidean aurkitzen dituzten oztopoak gizarte-sistemaren parte direlako eta ondorioz, Karmelek adierazi duen bezala, gizarte begirada itsutuak eta estereotipatuak txarra dena soilik ikusarazten duelako ona dena itzalean gordez.

“Te critican sin saber al final” (Maialen).

“ Como digo yo, “Lo gusto para tí y lo ancho para uno”. Ellas ven lo malo, no ven lo bueno”(Karmele).

Emakume hauen kasuan, emakumeak izateaz gain etorkinak direla gehitzen zaie oztopo bezala kolektibo zaurgarriagoa eta baztertuagoa bilakatuz (Juliano, 2000).

## 6.2. JF EGITEKO OZTOPOAK

Emakume latinoamerikarrek JF egiteko dituzten oztopoak honako atal hauetan antolatu dira eta puntuka aurkeztuko dira: oztopo intrapertsonalak, interpertsonala eta testuingurukoak.

### 6.2.1. Oztopo intrapertsonala

Eremu intrapertsonalean emakume latinoamerikarrek JF egiteko aurkitzen dituzten oztopoak emakume izateak suposatzen duenagatik gertatzen dira, hasteko eta behin. Emakumeek zenbait norabidetan beregain hartzen dituzte askotan ardura eta rol sozial asko, hain zuzen, ama, ahizpa amona, laguna, maitalea eta alaba paperetan (Freysinger eta Harris, 2006). Oraindik ere emakumeek oztopo gehiago dituzte aisia praktikatzeko garaian, besteak beste, etxeko lanak, etxekoen zaintza eta beste hainbat faktore (Alfaro Gandarillas et al. 2011). Vazquezek (2001) egindako ikerketan azpimarratu moduan, nahiz eta emakumeek aurrerapauso handiak egin, ez da haien aisiako JF praktika areagotu. Faktore horiek elkarriketatuen artean nabari dira, ez baitute JF egiteko astirik izaten. Izan ere, Eneritzen kasuan lana eta ikasketak tartean direla eta Karmele eta Maialenen kasuan lana eta ama direla kontuan hartuta, denbora falta JF ez egiteko arrazoi nagusienetako bat dela ondorioztatu dute, beste hainbat ikerlanetan azpimarratu den moduan (Eizagirre-Sagastibeltza et al., 2022).

“Me gusta mucho caminar y correr pero ahora la falta de tiempo no me ayuda” (Eneritz).

Historian zehar eta oraindik ere ohikoa da, emakumeek ez bakarrik aisiaz ez gozatzea baizik eta senarraren aisiak eta seme-alabek, amaren etxeko-lanak areagotzea (senar eta seme-alaben arropak garbitu, plantxatu, entrenamendu ordutegiak errespetatu, seme-alabei toi batera eta bestera eramane) (Vázquez, 2001). Hain zuzen esan genezake, ardura laborala zein familiarrak, emakumeek JF egiteko oztopo nagusienetako direla, praktikatu nahi arren ez dutelako burutzeko nahiko denbora edo beharko luketen eta dagokien aisia denbora (Martínez del Castillo et al., 2008).

Izan ere, Karmele eta Maialen “amaren rola” betetzen duten adierazpena dira. Romanek (2006) ikertu bezala, jakina da, oporrak eta aisia mundu guztiak dituela baina amen kasuan ez dute

behar bezala gozaten. Ardura eta etxeko-lanak termino biak oso barneratuak ditu ama batek eta euren aisian maiztasunez egin ohi dituzte, eurengandik espero den genero-rola betez (Henderson, 2006). Karmeleren kasuan, esaterako, senarrik gabeko ama izanik beregain ditu ardura guztiak eta Maialenen kasuan etxeko lan eta zaintza ardurak gehienbat bere ardurapean daude:

“De lunes a viernes mi despertar es a las 6:00 de la mañana. Comenzar con lo de la casa, ir avanzando personalmente , entre la comida, la cría...”(Karmele).

“Trabajo de mañanas, y yo si voy a trabajar tengo que compaginar con el niño porque solo soy yo la que tiene que llevarlo a la parada y recogerlo. Tengo que estar yo a la hora que viene y a la hora que se va. Soy yo la que le preparo, la que le levanta a las 7:30, le pongo el desayuno, le preparo, recojo la casa...Es que no sacas tiempo casi nunca. Siempre sale algo, aprovecho y me quedo lavando los cristales, pasando la aspiradora, fregando...”(Maialen).

Ondorioz, momentu batzuetan denbora falta horrek, denbora librean nekatua sentiaraztea dakarrela adierazi du Eneritzek. Orokorrean, biztanleriari etengabe osasun eta jarduera fisikoko gomendio eta programetan jarduera egiteko, gorputza mugitzeko esaten zaie haiek daramten karga eta nekea kontuan hartu gabe. Lan ordu kopuru altuak, gaixotasun psikoak eragiteaz gain neke handia sortzen du gorputzean (Echevarri et al., 2018).

“A veces llego tan cansada que no”(Eneritz).

Bestetik, emakume izateak dakarren gizarte presioa nabari da. Hain estereotipatua egoteak presio handia dakar emakumeengan elkarrizketatuek baieztatu duten bezala. Auzi hori JF egiteko garaian oztopo larrienetako bat bezala azpimarratu dute, hain zuzen, gorputz “perfektuaren” kanonaren barne ez izateak eta norbera den bezalakoa ez onartzeak autoestimu falta sorrarazten duelako (Hellin et al. 2004). Estereotipoek hartzen duten pisua izugarria da, pertsonen jarrerak aldatu eta haien askatasun eta naturaltasunean mugak jartzen baititu (Teijeiro eta al., 2005). Horregatik, Teijeirok esan bezala, emakumeei ez zaie batere erraza egiten beren gorputza onartzea askatasun pertsonaletik, oso barneratua duelako gorputzak besteentzat ikusgai eta egokia izan behar duela eta ez norberarentzat. Progresiboki emakumeak zailtasun handiz joan dira JFra hurbiltzen, mota guztietako oztopoak gaindituz (Teijeiro et al., 2005).

Elkarrizketatutako emakume gazteak argi adierazi zuen estereotipoek beste aspektuen artean JF egiterakoan emakumeengan duten eragina eta horiek suntsitzen laguntzen duen jarrera.

“Hay muchos estereotipos que no se terminan de quitar o uno mismo se lo crea y se lo cree literalmente que no puede hacerlo, pero finalmente lo puedes hacer. (...) De ahí viene la negatividad, no querer hacerlo, no involucrarse con los demás todo depende de la perspectiva de cada uno, pero yo siempre digo, que está muy mal y que cada uno tiene que ser uno mismo aquí y allá y sentirse seguro de lo que es. ¿Le damos a dar el gusto a todo el mundo? No, el gusto le tiene que dar uno mismo, te tienes que sentir bien tú. Yo siempre he sido de un carácter y de decir me da igual, nose si a veces soy prepotente, pero siempre he dicho me da igual porque si tú te creas eso, te vas metiendo y metiendo y no es parte de tí, es de la otra persona, te ve mal. A ver como mujeres, nos hacen sentir mal porque somos vulnerables, sí es normal pero no hay que creérselo porque te hace pasar una mala pasada”(Eneritz).

Eneritzek emakumeen estereotipoei aurre egiteko jarrera duela argi utzi zuen, bere burua zein gorputza den bezalakoa onartuz, autoestimua handituz eta bere segurtasuna gailenduz. Esaldi honek emakumeen estereotipoen aurkako barne borrokarako lagungarri duela adierazi du. Diskriminaziozko testuinguru horretan, guztiz beharrezkoa da emakumeen ahalduntzea bultzatzea: «Emakumeen prozesu indibidual eta kolektiboa da. Ahalduntzearen bidez, genero diskriminaziozko testuinguru batean, emakumeek beren ahalmenak, gaitasunak, estrategiak eta protagonismoa garatzen eta indartzen dituzte, bizitza pertsonal nahiz sozialaren alderdi guztietan modu autonomoan jokatu ahal izateko, berdintasuna lortzeko baliabideak eskuratzeko, erabakiak hartzeko eta aitortpena jasotzeko (Emakunde, 2020).

Emakumeak, beraz, beren gizarte-harremanen testuinguruan ahalduntzen dira: etxeke eremuan, gizarte-egituretan eta espazio publikoan generoen arteko botere-harremanak zalantzan jarriz eta eraldatuz (Martínez, 2006).

“Donde vayas nunca te sientas menos porque nadie es menos que nadie”(Eneritz).

Aldiz, Maialenek eta Karmelek elkarrizketan zehar gorputzaren ez onartzea eta gorputz “perfektu” eta irreal horren kanonaren parte ez izateak JF mota batzuk egiteko eragozpena sortzen ziela aitortu zuten, gimnasia joateko garaian adibidez, euren gorputzekin deseroso sentiaraziz. Michelek (1987) ikertu bezala, estereotipo determinatu batek duen inpaktu negatiboa “naturaltasun femenino tradizionalaren” ondorioa da.

“Yo al gimnasio no voy por el cuerpo. Yo tengo que llevar unas mallas y una camiseta larga y que sea ancha”(Maialen).

“Es que tenemos que tener un cuerpo, dijo mi hija 90-60-90. Pues no es así”(Karmele).

Hortaz, emakumeen estereotipoak barneratzeko eta aurre egiteko bide ezberdinak daudela ikusiz, norberaren jarreraren arabera, Eneritzek eta Maialenek adierazi bezala, ezberdintasun esanguratsua agertzen da beldurraren faktorean. Eneritzen kasuan, bere jarrera positiboak eta oztopoei aurre egiteko bere moduak beldur gutxiago izaten laguntzen diola aipatu zuen, Maialenen kasuan ez bezala. Horrek korrika edo oinez bakarrik joateko adibidean jarrera ezberdinak azaleratu zituen:

“A mí me gusta ir lejos o poder decir quiero estar sola”(Eneritz).

“Yo sola no voy ni a andar ni a correr, yo sola irme sola, rara vez que yo he ido sola. Yo si que tengo miedo”(Maialen).

Azkenik, emakumea izateaz gain, ama izanez gero, bai Karmele eta bai Maialenek JF egiteko zailtasunak ekartzen dituen faktore nagusia dela ondorioztatu zuten. Esaterako, haien gaur egungo bizitzako etapan. eurentzat aisia eduki beharrean beste lehentasun batzuk jartzen dituzte euren aurretik. Maialenek aipatu zuen bezala: “Nos olvidamos de nosotras mismas”.Beti lehen lerroan besteak jarri eta norbera azkena kokatzea (Henderson et al., 2002).

Elssyk (1982) esan bezala, ama eta seme-alaben arteko erlazioa ulertzeko ez da soilik aspektu biologikoa kontuan hartu behar, baizik eta aspektu sozial, kultural eta ekonomikoak dira amatasuna definitzen dute seme-alaben hazkuntzan rol ezberdinak hartuz. Hortaz, historian zehar arrazoi sozialak erabili beharrean arrazoi naturalak erabili dira emakumea definitzeko, hau da, amatasuna eta menpekotasuna emakumeen ardura bezala justifikatuz (Elssy, 1982). Izan ere, Karmelek azaldu zuen ama izatearen erresponsabilitatea eta horrek bere aisia denboran kentzen dion espazioa beste gauzen artean, adibidez, JF egiteko:

“A veces digo yo que la madre o la mujer nos olvidamos del mundo exterior. Para mí lo más principal es donde vivo, lo de mi hija y lo principal, la comida y estar solvente. Yo creo que mi vida voy a comenzar a vivir al máximo cuando mi hija ya esté preparada porque tiene 15 años y vivo al 100% por ella, porque soy madre soltera y solo depende de mí y yo quiero que tenga un futuro mejor que yo”(Karmele).

Karmelek esandakoak Freysinger eta Triandisek esaten dutenarekin bat egiten du, talde minoritario honen identitatea kolektibotasuna dela esaten denez, balore handiagoa familiak eta



komunitateak hartuz indibidualki egiten den edozerk baino (Freysinger et Harris, 2006). Hau da, eurengan pentsatu baino besteengan pentsatzen dute (Triandis, 1989).

Gainera, beste lehentasunak norberaren buruaren gaintik jartzean, ekintza ezberdinak egitea eta errutinatik ateratzea kosta egiten da, pixkanaka motibazioa galduz:

“Jamás me gustó el deporte, como no tenía a nadie que me animara, que me motivara pues...Aquí me pasa lo mismo como no tengo motivación...no tengo tampoco a nadie que me motive, no tengo esa rutina con alguien”(Karmele).

### 6.2.2. Oztupo interpertsonalak

Bigarren mailan faktore interpertsonala kokatzen da, honek pertsonen arteko elkarrekintzari egiten dio erreferentzia. Hain zuzen, familiaren, lagunaren eta bestelakoen arteko eragina. Azken hauek, JFari buruz duten esperientzian sinesmena eta jarrera erabakigarria izango da gizabanakoaren esperientzian (McLeroy et al., 1988).

Duranez (2000) egindako ikerketen artean ondorioztatu zuen, besteak beste, emakume gehienek kontratu sozial bat onartzen dutela haien familietan bizi guztirako irauten duena eta, gainera, eguneko ordu kopuruetan mugarik ez duena. Ikerketa honetan berretsi zen XX. mende amaieran emakume eta gizonen arteko etxeko lanen banaketek, aisiarako denbora gutxiago uzten diela emakumezkoiei (Duran, 2000). Maialenen kasuan, adibidez, menpekoa den haurra izateak egunerokotasunean adi egoteko ardurak eskatzen du eta horren arabera bere aisia eta JF egiteko denbora modu batera edo bestera kudeatu behar izaten du egunaren arabera. Horregatik errutina egonkor bat izatea zaila dela adierazi zuen:

“Yo tengo dos hijos, y el de 12 es dependiente porque tiene autismo...Hay que estar con ellos al final, la enfermedad autismo tiene días regulares, mejores, peores, y tienes que estar al 100%. Tengo que estar con el móvil a todas horas pendiente y así no se puede” (Maialen)

Autore ezberdinek esan bezala, zaintza ardurak emakumeen gain daudela ikusita familia bat edukitzean zaildu egiten du JF egiteko aukera aukera (Duran, 2000). Esaterako, elkarriketatutako emakume hauetan ere egoera horren isla nabari zen. Maialenen kasuan, bikotekidearekin adostutako ardurak banaketa 50-50 dela esan zuen hasiera batean. Izan ere, kultura kolektibista honek, balore interpertsonalak dituelako oinarri eta banakoa, familia eta ingurumenaren arteko intersekzioan

oinarrizten delako (Gloria eta al. 2003). Bestetik, familiarismoa eta haien arteko errespetua da kultura honen beste ezaugarri garrantzitsuenetako bat, izan ere, erabaki garrantzitsuak, familia osoan pentsatuz hartzen dituztelako eta ez indibidualki pentsatuz (Freysinger eta Harris, 2006). Hala ere, Karmelek Maialenek esandakoari ironikoki barre egin eta bere iritzia eman ostean, hark ere iritzia aldatu eta errealitatea bere hitzekin islatu zuen, banaketa hasieran aipatu bezain orekatua ez dela adieraziz gizon-emakumeen artean:

“Para mí no es 50-50, la que está casada siempre lleva más la batuta la mujer que el hombre, aunque digamos más 50-50, pero no la batuta llevamos nosotras, la mujer, porque somos a la misma vez doctoras, psicólogas, somos el despertador...”(Karmele)

“Sí, la verdad es que sí, mi marido al final está todo el día fuera. Que hay que ir a una reunión, venga ya voy yo. Si me dice, que necesita un papel en el ayuntamiento o lo otro, venga ya voy yo. Si tienes que llamar al colegio del hijo mayor, yo” (Maialen).

Azken finean, emakumeen eta amen etxeko lanen profila gainontzeko langileetatik bereizten da lanaldi iraunkorra eta jarraia delako (luzeagoa), asteko lanaldian (ez dago deskantsurik), urtean zehar (ez dago deskantsurik) eta bizi lanaldian erretiro gabekoa (Duran, 2000). Ondorioz, Maialenek aipatu bezala, denbora librean eta deskantsu uneetan ez dago erabateko deskantsurik buruan egin beharreko guztia biraka dabilelako:

“No desconectes, tienes tantas cosas en la cabeza que es difícil desconectar”(Maialen).

### 6.2.3. Testuinguruko oztopoak

Testuinguruaren dimentsioari arreta jarriz gero, hainbat dira emakume hauen ustetan JF egiteko oztopoak, hala nola, diru sarrerak, zerbitzu publikoen eskaintza eta baliabideak. Horrez gain, kulturala dela ere aipatu zuten batzuk JF egitera bultzatzen ez dituenak, lurralde bakoitzeko ohiturek zerikusia dutelako JFrekin ere. Hori ere oztopo gisa hartzen dute emakume hauek.

Aristotelesek esan bezala: “Gazteei ohiturak ganoraz transmititzeak ez du garrantzia gutxirik: garrantzia absolutua baizik” (Muñoz, 2006). Honekin ulertu dezakegu, gizakiak JFaren onurak ikusten ez dituen bitartean, hala nola, bizi kalitatea hobetzea eta osasun egoera hobetzea, ez duela bere barne ohituren artean sartuko bere beharrezko osotasun fisiko, psikiko eta mentala hobetzeko. Horregatik, hezkuntzan ohitura hauek barneratzea oso garrantzitsua da, sedentarismoaren arazoa fenomeno

kultural bat delako eta zoritxarrez Latinoamerika ez da arazo honetatik kanpo gelditzen (Ramirez eta Oca, 2019).

Honekin lotuta Eneritzek bizileku aldaketak ekarri dion kultura aldaketaren eraginez hausnarketa txiki bat egin zuen honen inguruan. Gazteak azaldu zuen moduan, bere ustez, kulturak izugarritzko inpaktua du JFan, kulturaren arabera JF modu batera edo bestera ulertzen eta ikusten delako, horrek JF praktikatzera bultzatuz edo garrantzia gutxiago emanez. Beraz, Eneritzek kultura aldaketan ohitura aldaketa oso handiak nabaritu dituela jakinarazi zuen JFari dagokionez:

“Si, totalmente 100 veces o un 110% más. Yo cuando vine aquí me quedé asombrada de cuánta gente hacía deporte, caminar y cuánta gente va a la montaña, a mí me encanta eso me encanta...Pero allí en nuestro día día no somos de mucho ejercicio, tenemos una vida muy agitada, pero de ejercicio casi nada, la juventud, no hay tanta costumbre. Decía yo, cómo se cuida aquí la gente como caminan.”(Eneritz)

Azken finean kulturaren JFaren ohitura eta zaletasuna badago, modu batera edo bestera pertsona ohitu egiten da horretara eta naturaltasunez praktikatzen du aukera anitza duelako:

“Si ya te haces, es parte de su cultura es una cultura que tenéis aquí ustedes”(Eneritz)

Testuinguruko beste faktore batzuen artean, bestetik, hiru elkarrizketatuek lan prekarioa dutela aipatzean, herrian dauden JFko zerbitzuetara joatea mugatzen diela jakinarazi zuten, euren diru-sarrerak aisaldian beste zenbait ekintza egiteko aukera izateko baxuegiak direla berretsiz.

“Trabajo de empleada doméstica en casas”(Karmele)

“Yo trabajo en limpieza (Maialen)

“Cuido a una persona mayor de 88 años”(Eneritz)

Diru sarrera eskasak kiroldegiak eskaintzen dituen jardueretara joateko oztopo nagusia dela esan zuten bai Karmelek bai Maialenek ere. Aurretik aipatutako lehentasunek ez diete baimentzen JFra bideratzea euren irabazietako zati txiki bat ere:

“Es que tampoco es que ganes...como para estar y decir mira me voy a un cursillo de actividad física una vez por semana. Es que el dinero, cuesta, por una hora una vez a la semana y tanto...Sí pero para entrar ahí necesitas ser socio. A todo le van subiendo el precio cada vez”(Maialen)

“Mi hija depende de mí y yo depende de lo que gano, es difícil, estoy muy limitada a hacer muchas cosas. Me gustaría hacer muchas cosas, pues sí pero la economía no me deja. (Karmele)

Euren gustuko eta baliozkoa den zerbaitetara apuntatzea euren aisian diruz mugatuak badaude ezinezkoa dela azpimarratu zuten emakumeek Ez zuten uste eskainitako zerbitzu horiek pertsona guztiek ordain dezaketen prezioan eskaintzen direnik, ez behintzat haien baldintzetan dauden emakume latindarrentzat. Ildo horretan, beste hainbat ikerlanetan ondorioztatu da diru-sarrerak eta egoera ekonomikoa badirela JF ez egiteko pisuzko arrazoiak, oinarrizkoagoak diren beharrak asetzeraz bideratuz diru-sarrerak (aipuren bat sartu).

Horrez gain, Ransdell eta Wellsek (1998), talde minoritarioek JFari buruzko informazio gutxiago dutela eta flexibilitate gutxiago dutela haien lan ordutegiengatik ondorioztatu zuten. Honekin bat egin dute elkarrizketatuek eta kiroldegietako jardueren eskaintzak haien ordutegiarekin bat egiten ez zuela azpimarratu zuten, beraz, bizilekuan JF egiteko izan ditzaketen aukeren eskaintza nahiko eskasa eta ez gustukoa zela adierazi zuten:

“Está el polideportivo el gimnasio también tiene unos horarios pero hay cosas que no, no me motivan”

Motibazio eza, jarduera fisikoari, autokontzeptu fisikoari eta bizi-kalitateari eragiten dion faktore larria da emakumeetan bereziki. Urteetan eta oraindik ere, kirol eta jarduera fisikoko praktikan dagoen emakume portzentaia eskasa, beste arrazoiaren artean, motibazio faltagatik dela diote zenbait autorek.

### 6.3. JF EGITEKO ARRAZOTIAK

JF egiteko aukera eta arrazoiaren informazioa antolatzeke ere eredu sozioekologikoa izan da ardatz nagusia, honako ataletan antolatuz informazioa: intrapertsonala, interpertsonala eta testuinguruko arrazoiak.

#### 6.3.1. Arrazoi intrapertsonalak

Eremu interpertsonala aztertuz, JF egiteko arrazoiak asko izan daitezke, baina emakume hauen kasuan batik bat JF askatasun unerako erreminta gisa erabiltzen zutela aitortu zuten, egoera fisiko eta osasuntsua mantentzen laguntzen zela adieraziz. Izan ere, Espainiako Kirol Ohituren Inkestan (Garcia Ferrando, 2006), ere ondorioztatu izan da arrazoi nagusien artean bat osasuna hobetzeko edo mantentzeko dela.

“La salud, que es lo más importante te da vida, te cambia totalmente, a parte que te ayuda a nivel corporal te nutre mucho. Estuve viendo cosas de yoga pero no encontré y me gustaría bailar”( Eneritz)

Beste arrazoietakoa bat jarduera bat gustukoa duzunean sortzen dizun barne gozamina eta horren beharra zela azopimarratu zuten, Maialenek sentitu bezala. Barne motibazio horrek gorputza aktibo mantentzen laguntzen dio:

“Yo me apunto a carreras. He hecho muchas carreras porque me gusta mucho o marchas y sin prepararme muchas veces, digo me apunto y yasta. Porque luego ya tener tiempo de entrenar...”(Maialen)

“Antes de la pandemia llevaba ya 5 carreras, 5 marchas, yo creo que ya tengo 13 camisetas pero yo no lo hago por ganar, si llego última en la carrera, pero a mí me motiva”(Maialen).

Azkenik, hirurek aitortu bezala, askatasun unerako erreminta gisa erabili ohi dute JF, ohiko egunerokotasunetik aldendu eta lasaitzeko zein deskonexiorako tresna dutela agertuz.

“Voy a andar porque cuando ando desconecto mucho. A veces, voy a andar el sábado o el domingo a la tarde. Si que son dos días que me despejo y desconecto mucho”(Karmele).

### 6.3.2. Arrazoi interpersonales

Eremu interpersonalean, hirurek azpimarratu zuten nahiz eta JF bakarrik egitean askatasun unerako erabili, batzuetan jende artean egiteak beste poztasun bat eta besteekin jarduera bera gozatzeko aukera ematen duela, hala nola, familiarekin, lagunekin edo jende berriarekin. Koivularen (1999) ikerketan, osasun fisikoa, ondo pasatzea eta gozatea agertu zuten JF egiteko arrazoi nagusien artean, kasu honetan sozializatzaren arrazoiak bigarren mailako izanik. Honekin lotuta Eneritzen bizipenak motibazioa nondik datorkion ikusten laguntzen du. Azken finean emakume gazte honen kasuan beste kasuetan ez bezala, zaintzen duen amonaren familiak kasu handia eta sozializatzeko erraztasunak eman dizkiola adierazi zuen. Familia hau herrian oso soziala denez eta mendizaletasunaz gain edozein jarduera egitea gustuko duenez, Eneritzi edozeren berri eta nahi duenean haiekin ateratzeko arazorik ez duela jakinarazi zioten lehen momentutik, ohiko bere harremanen testuingurutik at egon zitekeen ate berri bat irekiz Lasarte-Oriako beste pertsona batzuk ere ezagutzeko. Horrek, emakume latindar hau bertako jardueretara gerturatu eta inguruko mendietara joateko motibazioa heldu zaio, eraginez, besteekin batera gozatu.

“Ya le digo a Tasio que quiero ir a la montaña”

Karmelek ere lagun batekin ibiltzera joaten denean asko deskonektatu eta elkarrekin gozaten dutela aipatu zuen:

“Nos desconectamos y me gusta muchísimo caminar y ver el paisaje”

Maialenen kasuan, berriz, semeak eduki arren, gizonak lasterketak egiteko eta herriko jardueretara apuntatzeko jarrera positiboa eta babes handia duela azaldu zuen. Egunerokotasunean ere ibili edo korrika egitera joatera bultzatzen duela, baina ondoren bera dela, zenbaitetan, atzera begiten duena etxean dauden gauzak egiteko edo eguneko nekea dela medio. Hala ere, kanpora irteten ez bada egunean 30min bizikleta estatikoan ibiltzen dela aipatu zuen, zirkulazioa mugitzeko helburuarekin.

“Yo le digo, me voy a apuntar a una carrera, venga y me anima, bueno si si. Y le digo, voy a andar y me dice bien y cuando le llamo y me pregunta si he ido le digo que me he quedado descansando. Compramos una bicicleta estática y si no salgo hago todos los días media hora para la circulación” (Maialen).

### 6.3.3. Testuinguruko arrazoiak

Hirugarren dimentsioarekin amaitzeko, testuingurua aztertuz, jakina da, emakumeen JF egiteko arrazoiaren artean eragin handia duela gorputzaren estetikak gaur egungo kanon estetikoaren ondorioz. Hori oztopo larria dela ikusita emakumeek horri aurre egin behar diotela baloratu beharko litzateke (Hellin et al. 2004). Hau ikusita, Maialenek horrekiko duen jarrera positiboa denez, autoestimua altu eta horren bitartez beldur gutxiago somatzen duenez, JF bakarrik egitea asko gustatzen zaiola aipatu zuen hasieran eta oztopo hori berak bere praktikotasunerako ez zuen oztopo bezala hartzen esan zuen, kontrako efektua sortzen ziolako, jendeak bakarrik joateren iritziak jasotzean, nortasunez baiezko erantzuna emanez, nahiz eta literaturan segurtasun falta eta leku ezezagunetan JF egitea oztopo direla ondorioztatu den ikerlanetan, kaleak guneez ez seguruak bilakatuz (Clark, 2015).

## 7. ONDORIOAK

Lan honen helburua, Lasarte-Oriako emakume latinoamerikarrek, aisian JF egiteko dituzten ohitura, oztopo eta arrazoiak ezagutzea izan zen, errealitate soziala ezagutzeko eta ondoren haien behar eta interesak aintzat edukitzeko. Erabilitako metodoa baliagarria izan da eskuratu nahi zen informazioa eskuratzeko eta ondorioak ateratzeko. Hain zuzen, elkarrizketa bidezko teknika erabili da, zeina emakume hauen ahotsak eta esperientziak entzunda errealitate soziala ezagutzeko eta ikuspegi eta begirada zabalago bat edukitzen hasteko bitarteko egokia izan den. Bildutako informazio guztiak JF egin eta aktibotasun maila gomendatuetara hurbiltzeko (MOE, 2021) dituzten oztopo eta arrazoiak ezagutzea ahalbidetu du. Hauek izan dira lanean ateratako ondorioak, beraz:

- Etorkinen hasierako urteak oso zailak dira migrazio-politikak, euskara faltak, besteen begiradak eta gutxiespenak dakarren zailtasun eta oztopoengatik, modu ez-zuzenean JF egiteko baliabide gutxi eta oztopo gehigarriak izanik.
- Emakumeen gorputz irudiaren estereotipoa, oztopo larria da gizartean eta esparru guztietan. JF eta kirola, kultura eta gizartearen isla direnez, bertan nabari dira segurtasun falta eta etengabeko presio sozial horiek.
- Zaintza ardurak emakumeen gain egoteak, aisiako askatasun uneak zailtzen dizkie, baita jarduera fisikoa egiteko denbora falta ere.
